


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bizitza literario bat



Saioa Ruiz



Neguko egunerokoa
PAUL AUSTER

Itzultzailea: Oskar Arana
Txalaparta, 2015

Gorrotu dut pertsona batek bere autobiografia idazteari ekiten dionean. Zer pasatu behar zaio burutik, bere bizitzak liburu bat merezi duela pentsatzeko?

Betidanik uste izan dut, eta baliteke okertzea, bi arrazoik bultza dezaketela pertsona bat bere autobiografia idaztera. Lehena, errekurso falta. Hau da, kreatibitatea agortzen hasi zaionaren seinale, eta hortaz, bere azkenetan dagoen idazlea delako. Eta bigarrena, kreatibitate hori inoiz ez da existitu eta, beraz, idazle frustratu bat delako. Ez da inondik ere gure idazlearen kasua.

Esan gabe doa, Austerrek luze eta sobera irabazi duela idazle izatearen meritua. Nik hamasei urterekin ezagutu nuen eta harrez geroztik kuttunetarikoa dut, horregatik barakatzen diot bere bizitzaz idatzi izana. Bere hitzetan bidaiatzea plazer hutsa da niretzat, baina egia da azken urteotan bere kreatibitatea agortzen hasia dela istorioak asmatzearen kontuari dagokionean. Oso kontzientea naiz nire zorrotasunaz, kritikatzeara delako, batez ere kritikarioi idazle frustratuak garelako leporatu zaigunean.

Neguko egunerokoa (*Winter Journal*, 2012) ez da edonolako autobiografia, eta ez dauka zerikusirik idazlearen gaineko liburuekin. Baina, onartu beharra dut, irakurri dizkiodan guztien artean austeria-noena dela.

Metaforikoki neguari lotuta dauden zahartzaroaren lehen aztarnek bultzatu dute Paul Auster barrura begiratzera. Bere memoriaren proiektio honetan zehar, sei urte zitueneko neguarekin hasi eta hirurogeita bost urteko neguarekin amaitzen diren haririk gabeko diapositiben nahasketa

bat eskaintzen digu. Horrela datoz oroitzapenak askotan; gainjarrita, nahasirik.

Autobiografiatik aldentzen duen ezaugarrietako bat darabilen bigarren pertsona da: “Pentsatzen duzu zuri ez zaizula inoiz gertatuko” (7. orria). Bam! Austerren esaldi tipikoenetako bat. Erradiografiak begiratzaren dituen medikuaren antzera, gorputzetik atera den arimak idazten du bizitzak utzi dizkion arrasto fisiko eta emozionalez hausnartzeko: “Orbaina meheagotu egin da urteekin, baina oraindik ere hor dago bila hasten bazara, eta zorte onaren ikur hori aldean eramango duzu hilobira arte” (13-14. orriak). Erantzunen bila dabilen arima ere bada: “Ikusirik zure iraganeko porrotak, zure irizpen okerrak [...]. Saiatu zara asmatzen zortearen ustekabeko aldaketa horren arrazoa. Baina inoiz ez duzu aurkitu erantzunik” (224. orria). Horrela, Austerren bereizgarria den efektu metaliterarioa antzematen dugu: irakurtzen dela idazten duen idazlearena.

Neguko egunerokoa bere obra osoaren sintesizat har daiteke. Bizi bat literatura bilakatu edo literatura bizitza bilakatu. Ba al da gauza ederragorik? ■

